

Gabriel Derteano Txintxurreta
Iurreta, Bizkaia (1919)

Aurkibidea

Biografia

Orozketako Otalora baserrian jaio zen 1919an, eta bertan bizi izan zen. Bere aita Ibarrurikoa (Muxika) zen, baina 4 urte zituenerako lurretan bizi zen. Beti ibili da baserriko lanetan, sekula ere ez lantegian; Soldadutza aurretik 3-4 hilabetez baino ez zen ibili Ortiz de Zarate fundizioan. Andrea, [Felipa Zamalloa](#), Santa Marina auzoko Gaztañatzatorre baserrikoa da.

Zintak

IUR-010

- **Proiektua:** Iurreta elizateko euskara eta toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Data:** 1991-01-01
- **Iraupena:** 17 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Emalea:** Errazti Igartua, Alberto

IUR-051

- **Proiektua:** IRALeren Bizkaiera Bilduma
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirresarobe, Kolesti - Bakedano, Virginia - Elejabarrieta, Begoña - Gonzalez, Ana Fé
- **Data:** 1989-05-01
- **Iraupena:** 104 min
- **Euskarria:** VHS Standard

Pasarteak

1. Karobiak I

- **Erref:** IUR-010/002
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:00:08. **Bukatu:** 00:02:45

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Etxe ondoan zuten karobia. Zelan egiten ziren azaltzen du. 50 bat karobi ingurua zeuden inguru horretan. Karobiak solorako erabiltzen zen, kareak lurra samurtzen du. basoan otea ebaki behar izaten zen. Amaitu ziren, ez du merezi eta.

Transkripzioa

Karabiyek? akórdu(a)n ondo dekúas. Arreskero jun dan iruogei eo iruogei bat urtien esan erreko bape, baia nik dosena bat urte euki nebasenien, amairu bat, atzénengo erre san órtxe. Orrek itte sien, sulo bat onétara, esta?, da gero itten san karabiyen barrúen, beste arku bat onétara, arku bat, erredóndue, da arén gánien atxárriyé kárgeta san. Kargeu itte san atxárriyé gánien, da goiyen arri-losakas tapau itte san, garrak eta andiyek urte estaiyen da, da karabiyek aspíttik káñu(e) éuken, da karábiyen, ótia sartzeko lekúen bentanillatxo bat ónakotxe bentaniltxo da andixík úrkulugas ótia sartze san, da orrétaxe karie errete san. Oiñ esta itten, oiñ asko kostaten da ta. Lénau bákixu, nún irabasi be eseuen jomalik eta lénau karíak, emen badaus berrogetamar karábi, neu pe óntxe topatuko nekes erres, emíntxe, emíntxe, eméndixi Durongotik, ementxe kontórnuen. Lenau karabiyek, bi tte iru ta arkaleko onduen be badaus.

Orrek soluetaako itten sien sóluentzat kária ona da, lurre xamúrtu itten deu, érre itten deu lúrre, bai. Da oiñ órrek juen sién, órrek asko kostate ie (e)besa(n),basú(e)n otia erré be isete san, ero ótie ebái be ixete san, ote aundiye, es txikiye, ote aundiye. Da oiñ órrek karabiyok akabau sien emén, oiñ obrataako ta órr(e)tako, or Gemíkatikaántza dau karabiye, orrétaa ta de(d)iketa(n) dana, óbrataako ta, baie ostántzien iñún esta itten karabi(r)ik, e, iñun bes. Estau merési(d)u, jode! ésta erréntablie, bost ogerleko irabasteko egun gustiyen inbiosu biérrien, gaur, barris se!, sea bost ogerleko es, txakurraundi ba pes, gaur estau, jagi tte akabo da orí.

2. Erromeriak

- **Erref:** IUR-010/005
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:06:11. **Bukatu:** 00:07:41

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromeria kontuak: plaza-mutilak, plaza-neskak, aurrekuak... Meza ostean lehenengo aurrekuak egiteko bertako kofradiako mutilek zuten lehentasuna. Dantzara ateratzen zituzten neskak ere, bi neska, bertakoak izaten ziren. Auzokoek dantza egin eta gero gainerakoak egiten zuten. Erromerian danbolina egoten zen eta iluntzean filarmonika.

3. Maistra onak

- **Erref:** IUR-010/008
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:09:08. **Bukatu:** 00:10:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Maistra onak izan dituzte auzoko eskolan. Lehenengoa Jazinta izan zen eta ostean, durangar baten emaztea egon zen 44 urtez.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com